



Hamairu kantu herrikoi, Santa Zeziliari. Musikarien egun handia izaten da Santa Zezilia. Azaroaren 22a izaten da egun seinatua, eta haren inguruan kontzertu asko antolatzen dira; azkena, bi abesbatzek kantatu dute Hernanin. Ostiralean Goiz Eguzki jubilatutako abesbatzak kantatu zuen, eta atzo Kantuz abesbatzak. Ez zen abesbatza bakarrik izan ordea, ber-

tan izan ziren Hernani eta inguruko txistulariak, metal boskotea, eta akordeoilariak ere, eta ohi bezala, Sandiusterrri bete egin zuten. Musikariek lau obra jo zituzten hasieran, Kantuz abesbatzak 7 kanta kantatu, eta azken bi kantetan elkarrekin aritu ziren: Xalbadorren Eriotza eta Furra Furra. 13 kanta beraz, Santa Zezilia egunari, eta hernaniar guztiei eskainiak. ||

◆ HERNANI'N MUSIK

Golden Apple Quartet ikusteko sarrerak salgai, astelehenean

Astelehenean jarriko dituzte salgai Golden Apple Quartet musika talde ezaguna ikusteko sarrerak. Kontzertua abenduaren 10ean izango da, Hernani'n Musik programako azkena. Joan den osteguneko arrakasta handia izan zuten Alasdari Fraserrek eta Natalie Haasek. /2

◆ JUDOA

Gipuzkoako judoka onenak, gaur kiroldegian

Gipuzkoako Txapelketa jokatu da gaur Hernanin, 09:30etatik aurrera, eta ondoren infantilen jardunaldiak izango dira. Bertan izango dira Hernaniko Eskolako kideak, oso bolada onean dabiltzanak. /2

◆ XAKEA

Hernaniar onena zein ote?

Hernaniko xake txapelduna zein den gaur jakingo da, Zumitza tabernan. Partidak 16:30etan hasiko dira. /7

CHILLIDA LEKU MUSEOA

Chillida Leku, atepak ixtekotan

Diru arazoak direla-eta, Chillida Leku museoa itxi egin dezakete urte bukaeran.

MUSEOKO web orrialdean publikatu zuten atzo, Chillida Leku museoak atepak itxi ditzakeela urte bukaerarako. Ekonomikoki egoera larrian dago Chillida Leku museoa,

eta ezinezkoa zaio gaur egungo egoerari aurre egitea. Bisitari kopurua asko jaitsi da azken urtean, krisiak eraginda, eta administrazio publikoaren laguntza behar beharrezkoa

dela diote arduradunek.

10 urte ditu Chillida Leku museoak, 27 langile ari dira bertan lanean, eta Chillida-Belzunce familiak gestionatzen du, modu pribatuan. Orain-

goz, hiru entitate publikorekin saiatu dira erremedio bat bilatzen (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udala), baina ez dira akordio batera iritsi. ||

GAUR KRONIKAN

LABURRAK /2

Jasota Bezala: Joxe Elizondo Arruti 'Niko' /2

KIROLAK: Futbola, pelota, ehiza, areto futbola... /7

Eskelak /7

Victor Goikoetxea /8

arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

'Cavita'zioa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

ORAIN, TRATAMENDU BONOAK HARTUZ GERO, AURPEGIKO TRATAMENDUAK OPARITZEN DIZKIZUGU.

Zatoz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztial!

TERMO-SALUD
cavitación

gerria
6 sesio
-2,5 cm

abdomena
6 sesio
-1,6 cm

izterrak
6 sesio
-2,8 cm

Brintza

ERRETIRO ASEGURUAK - BGAE

**LEKU ALDAKETAK
ETA
ASEGURU BERRIAK
OPARIA DUTE**

Zatoz galdetzerat!

* Eskaintza honek bulego honetan bakarrik balio du

Brintza, Urbieta, 15 - Hernani - Tel. 943 331 267

❖ HERNANI'N MUSIK

Zuten guztia eskaini zieten hernaniarrei Alasdair Fraserrek eta Natalie Haasek

Hotzikara sentitu zuen Biterik, ikasleak tabladura igotzean, eta Mikel Laboa gogoratu zutenean.

ESPERO bezain beroa izan zen osteguneko kontzertua. Alasdair Fraserrek eta Natalie Haasek zirrara batean eduki zituzten Biterira inguratutako entzule guztiak. Hernanira egokitutako kontzertua; beren kanta ezagunenak, eta egunerako moldatutakoak... Trantze batean izan zen jendea. Biterik dar-dar egin zuen musika eskolako 15 ikasle munduko musikari onentsuenekin jo zutenean. Laboari egindako oroitzak malako atera zituen. Nekez ahaztuko den esperientzia, inondik inora.

Hernani'n Musik bukatzeko, azken kontzertua: *Golden Apple Quartet*, abenduaren 10-ean, 22:00etan Biterin. Sarrerak salgai jarriko dira azaroaren 29an, 6,5 euroan. Erdiak goizez eta erdiak arratsaldez. Gehienez 4 erosi litezke. ||



Alasdair Fraser biolinjolea, Natalie Haas txelista, eta musika eskolako biolin ikasleak, ostegunean.

Argazkia: Ikor Kotx

➡ **Jasota Bezala**

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Tratu txarrak: kezkek eta begiradak

Ezer baino lehen, adierazi nahi dut: a) Nere babes, pertsona eta entitateak tratu txarren kontra egiten ari diren lanari. b) Nere kezka, konbokatutako diren ekitaldietan izan den jende eskasiagatik (Hernaniko kasuan, gutxienez).

Kezkek eta urrunetik begiratzen diet zenbait ahots feministari. Argumentu gisa darabilte, batez ere, eta modu zurrunean, beti esan izan den bezala, gizonezkoek gehiago direla uste dutela, edo emakumeak gutxietsi egiten direla, eta horrek eragiten dituela jokaera onartezin horiek. Ez dut ukatuko, horrek badu eragina (neurri batean), baina gauzak ez dute koadratzen (orokorrean). Ikusi dezagun:

Azken hamarkadetan, Lurraren alde honetan, aldaketa haundiak lortu dira, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunean, eta baita bizitzeko ohituretan ere. Hona batzuk: Eskubideak, lana eta independentzia ekonomikoa, Hezkuntza eta balore kulturalak, Espazio publikoa eta askatasunezkoa, pribatua gertatzen ziren zapalketak publiko egitea, Jarrera aldaketa emakume eta gizonezko gehienena, Harreman afektibo eta sexualak, Autoestima, Gazteriaren mentalitatea, Biktimei babesa... Bestalde, tamalez, aurreratu den hori guztia ilunago ikusten dugu, jakinarazten zaigunean, gazteak direla tratu txar gehienak egiten dituztenak; eta suposatzen da, gazte horiei ez zaiela heziketa matxista eta boterean oinarritua eman. Nola azaldu orduan, gertaera/errealitate horiek?

Komeni da faktore batzuk aztertzen hastea (idea matxistaz harago), prolematika horri eragiten diotenak, gauzak aurrez konpontzeko balio baitezakete: Zerk eragiten ditu giza-kiaren biolentzia-agresibitate-auto-ritatea (batez ere gizonezkoena)? Bestearen eskubide indibidualak kontrolatu eta zapaltzea, gauzak hitz eginez konpontzen ez jakitea, aniztasuna behar adina ez errespetatzea, beste balore batzuei garrantziarik emateko neurririk ez hartzea, eta abar, eta abar?

Azkenik, iruditzen zait, *baina* guztiak kenduta (eliza eta abarren jarrera *karkak* adibidez), eta egoera larri honi garrantziarik kendu gabe, orokorrean uste dut, baditugula arrazoiak baikorrak izateko (konformistak ez) TRATU ONAREN alde egiten ari garen bidean. Eta iruditzen zait, hain gai korapilotsuari erantzun sinpleak bilatuta ez goazela bide onenean, feminismo abegikor eta integratzaile bat nahi badugu, gaur egunera egokitua, eta pertsonen Berdintasunaren aldekoa.

Joxe Elizondo Arruti -"Niko".
(*erredakzioan euskeratua)

❖ GAZTE ASANBLADA

Asanblada gaur

Bi gai izango dituzte gaur hitz egiteko, Gazte Asanbladako kideek. Batetik, abenduko egitarauari buruz ariko dira, eta bestetik, Kontrakantxa Gaztetxearen 4garren urteurrenari buruz. Arratsaldeko 18:00etan, Gaztetxean. ||

❖ ZINEA

Bi pelikula, gaur arratsaldean

Zinea gustuko duenak, gaur bi pelikula izango ditu Biterin. Bat, *La red social*, 19:30etan botako dute (Facebookari buruzko pelikula da). Bestea, *Animal Chanel*, 17:00etan. ||



Hotza eta mugimendua, bigarren eskuko azokan.

Bigarren eskuko azoka antolatu zuen San Marko mankomunitateak atzo, hileroko gisara, azken larunbatean. Hotzak eta euriak pixka bat atzendu zuen jendea, baina hala ere, mugimendua izan zen goiz guztian. 20 postu inguru jarri zituzten atzo, gusto guztietarako produktuekin. ||

❖ KONTZERTUA

Musika Eskolako akordeoilariak kontzertua etzi

Akordeoi doinuak gustoko dituenak, asteartean izango du kontzertua, Hernanitik atera gabe. Hernaniko Udal Musika Eskolako akordeoi ikasleek errepertorioa prest dute dagoeneko, kontzertu bikain bat eskaintzeko. Milagrosan, 18:00etatik aurrera. ||

❖ AEK

Euskeraz soltura pixka bat hartu nahi dutenei klaseak

Hernaniko AEK euskaltegiak hasi du aurtengo kurtsoa, eta badira ordu batzuk oraindik libre. 09:00etatik 11:00etara bada klase bat, euskera pixka bat jakin, eta soltura hartu nahi dutenentzat. Dirulaguntzak badaude matrikularen zati bat ordaintzeko. Deitu: 607 59 28 64; edo hernani@aeek.org. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Loteria salgai, abenduaren 3ra arte

Goiz Eguzkiko bazkideek Loteria erosi nahi badute, abenduaren 3ra arte dute epea. ||

❖ ONGINTZA

Abenduan egoitza bat behar duten adinekoei, deia

Ongintza Patronatuak jakinarazi duenez, asteartea baino lehen izena eman dezakete Ongintzan, abenduan egoitza bat behar duten pertsona helduek. Egun batzuk pasatzeko bakarrik da eskaintza eta bere kabuz moldatu ezin direnei eskaintzen zaie. Ongintzako bulegoetan informazio gehiago. ||

❖ INAUTERIAK

Bilera asteazkenean, inauterietako festa prestatzeko

2011ko inauteriak urruti daude gehienentzat, baina zerbait berezia egin nahi duenak hasi beharra dauka mugimenduan. Horregatik, bilera deitu dute Biteri kultur etxetik, inauterietan buruz hitz egin, eta egun horietako festa prestatzen hasteko. Asteazkenean, 19:00etan, Biterin. ||

❖ IPUIN ORDUA

Lur Korta ipuin kontalaria, etzi izango da Biterin

Datorren astean, ipuin ordua dute Hernaniko umeek, Hernaniko Udal Liburutegian. Lur Korta ipuin kontalaria izango da bertan, eta bi saio eskainiko ditu: 17:30etan bat, 3-4 urtekoentzat; eta 18:00etan bestea, 5-7koentzat. Hernaniko Udalak antolatzen du, Eusko Jaurlaritzak lagunduta. ||



GABONETAKO ZOZKETA 2010

BERRIAK

HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

- Saski erraldoiak
- Saski bakoitzak 15 saritik gora
- Mota guztietako produktuak, jakiak, jantziak, mp4...
- Berriak-eko merkatari eta ostalariek jarritako sariak
- Errifak salgai 1 €-an
- Berriak-eko establezimenduetan eta Hernaniko Kronikako banaketa puntuetan
- Zozketa abenduaren 23an, Biteri kultur etxean

Egin zure erosketak Hernanin!
Hernani bizirik!

Hasi gara hirugarren saskiarekin!!!

Aste honetan bildutako sariak:

1. NEKANE ESTETIKA: Gorputz masajea.
2. ARALAR: Viña Real ardo kaja, kopak eta guzti.
3. MONICA: Emakumearentzat etxeko bata.
4. ILAZKI: Soineko bat.
5. ALTZARIAK ARREGI: Aulki bat.



HIRUGARREN SASKIA

ARALAR TABERNA Viña Real kaja kopak eta guzti	NEKANE ESTETIKA gorputz masajea	MONICA Emakumearentzat etxeko bata	ILAZKI soinekoa	ARREGI ALTZARIAK aulki bat
---	---------------------------------------	--	--------------------	----------------------------------

LEHENENGO SASKIA

- HAIZEA KORTSETEGIA: 60€ko erosketa txartela
- MARNA KONPLEMENTUAK: Koilare eta erreztun konjuntua
- JAIONE KONGELATUAK: Iberiko sorta
- HOKI LENTZERIA: Emakumearentzat pijama
- OHIALA: franelazko maindireak
- URRATS ZAPATADENDA: Tuckland trekking zapatilak, gizonezkoentzat
- MARI FE ARRANDEGIA: 2kgko langostino kaja
- BALANTXA DVD 24ORDU: 29€ bono txartela dvdak alokatzeko
- BALANTXA CENOR: MP4a
- VALEN NOBEDADEAK: Umeentzako konjuntua
- KAIXO POLTSAK: Maleta handia (70cm)
- BOKBI OPTIKA: Ray Ban betaurrekoak
- OINDI TABERNA: Viña Real ardo kaja
- KERA: Emakumearentzat berokia
- JOXE MARI TABERNA: Marques de Arlenzo krianza ardo kanaeta 6 ardo kopa
- ANZIOLA OKINDEGIA: 10 razioko errege tarta
- LA CASA DE ELAH: Gorputzerako eta etxerako produktu ekologikoen xestoa.
- DORRONSORO: Hilabete osoan eguneko ogi bat.

BIGARREN SASKIA

- JAIONE KONGELATUAK: Kilo 1eko langostino kaja
- BALANTXACENOR: MP3
- ANZIOLA OKINDEGIA: 1 errege tarta 10 raziokoak
- DORRONSORO: Hilabete eguneko ogi bat
- NEKANE ESTETIKA: Limpieza de cutis
- KIXKAL: Bierzoko magnum ardo sorta (Casar de Burbia, Hombros...)
- AITOR PEÑA: Olio sorta
- URBIETA KOPIAK: Bulegoko material sorta
- IBAI-MENDI: Mendiko bi makil
- ARROSAK: Gizonezko kremak
- AMEGAR: DVD Blueray
- ALKORTA HARATEGIA: Eguberritako saskia (gazta, ardoa, olio...) -
- URUMEA FERRETERIA: juego de dos copas de vino com decantador reta bandeja
- PELISIMO: Fotodepilazio sesio bat eta krema
- IRIGOIEN OINETAKOAK: Etxeko zapatilak 2 pare, gizonezko eta emakumezkoentzat
- TORRES: Prismatikoak
- LEOKADISTI: 2 liburu, bat euskeraz eta bestea gaztelaniaz
- ADARRAGA: Etxeko turroi sorta eta Ana de Codorniu cava kaja

Moztu ikus-entzunezko enpresako kide eta sortzaileak dira Idurre Telleria, Inesa Aristimuño eta Enara Goikoetxea hernaniarrak. Nahi zituzten gaiak, nahi zituzten moduan lantzeko sortu zuten

Moztu, orain dela 8 urte, eta bidea gogorra eta luzea izan arren, lortu dute helburua. Beraien proiekturik haundienak abenduan ikusiko du argia. 'Azken urratsa' da, Comete Sareari buruzko dokumentala.

Idurre Telleria, Inesa Aristimuño eta Enara Goikoetxea - Moztu

«Dokumentalak dira gure ume kuttuna, gure bizioa eta, zenbaitetan, perbertsioa»

KUTSIDAZU bidea *Ixabel, Eutsi!, Mugaldekoak, Debekatua dago oroitzea...* pelikula eta dokumental ezagun ugariaren muntaketa eta postprodukzioaz arduratu da Moztu, Donostian dagoen ikus-entzunezko enpresa. Baina hori baino gehiago da Enara Goikoetxea, Iurre Telleria eta Inesa Aristimuño hernaniarrentzat, Moztuko hiru langile eta sortzaileentzat. «Egunerokotasunean bizitzeko egin behar dituzun lanak daude eta horretan, guk muntaketa eta postprodukzioa egin eta egiten dugu beste produktoreentzako, beste enpresentzako. Baina Moztu sortu zen guk nahi genituen proiektuak, gaiak, istorioak... nahi genituen moduan lantzeko. Batez ere, dokumental moduan», azaldu diote Hernaniko Kronikari.

Eta helburu horri eutsiz, pixkanaka-pixkanaka hazten joan dira eta besteentzako produzitzeaz gain, beraien zenbait proiektu ere garatu dituzte edo garatzeko bidean dira; hala nola, *The Pamps, Cuidadores, Denbora zenbatzen, Amaren ideia, Ametsaren koloreak: Zumeta...* eta denetan potoloena, *Azken urratsa*. «Gure seme-alaba nagusia», diote. Comete Sarearen inguruko dokumentala da hori eta bospasei urteko lanaren ondoren, abendurako izango da prest.

Dokumentala, benetako istorioak kontatzeko bidea Moztu enpresa 2002ko aben-



Iurre Telleria, Inesa Aristimuño eta Enara Goikoetxea hernaniarrak, Moztuko langile eta sortzaileak.

«Dokumentala hemen (Euskal Herrian) lantzen zen gehiago erreportaje moduan eta guk gehiago ulertzen genuen dokumentala, zinearekin lotuta, historia kontatzeko; benetako istorioak kontatzeko».

duan sortu zuten Goikoetxea eta Telleria hernaniarrek eta egungo beste bi lankidek. Aurrez aipatu bezala, beraien ideiak nahi bezala lantzeko

asmoz. Ingalaterran topatu ziren eta han dokumentalak lantzeko tradizioa bazegoen eta gustatu egin zitzairen. «Dokumentala hemen (Eus-

kal Herrian) lantzen zen gehiago erreportaje moduan eta guk gehiago ulertzen genuen dokumentala, zinearekin lotuta, historia kontatzeko; benetako istorioak kontatzeko. Dokumentala guretzat da, gure ume kuttuna, gure bizioa eta, zenbaitetan, perbertsioa». Aristimuño handik gutxira hasi zen lanean Moztun eta egun, 9 dabil-tza. Esku artean dituzten proiektuen arabera, gehiago

edo gutxiago izaten dira. Oinarrian, seik osatzen dute lan taldea.

3-6 urteko proiektuak

Moztuk landu ohi dituen proiektuetan, ikerketa prozesua oso luzea izaten da eta proiektuak 3-6 urtekoak izaten dira, gutxi gorabehera, hiru hernaniarrek azal dutakoaren arabera. «Izan ere, ikerketa prozesuan pertsonekin aritzen gara lanean eta beraiek bizita-

XALAPARTA-K ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIZUEGU 26. ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETAN LAGUNTZAILE IZAN ZARETENOI

- | | | |
|---------------------------|----------------------|-----------------------------|
| - Xabier Bixintxo Zabala | - Aitona kafeak | - Vascoplast |
| - Setien sagardoak | - Hernaniko Udala | - Txirrita auto-konponketak |
| - Altzuetako sagardoak | - El Diario Vasco | - Xabier Goikoetxea |
| - Zelaia sagardoak | - Miguel Montenegro | - Catala Occidente |
| - Oialume sagardoak | - Nekane | - Vascongada funeraria |
| - Vinos Beronia (Arriaga) | - Fueraria Orbeagozo | - Nogales S.L. |
| - Vinos Olmaza | - Hator | - Portalondo estankoa |
| - VIGUISA almatzenak | - Aralar taberna | - Transportes Etxezarreta |
| - Sein Izarra | - Rioja taberna | - Kutxa |
| - Goros | - Putzueta harategia | - Rural Kutxa |
| | | - Euskadiko Kutxa |



amegar
otxo tresnak - altzariak

Zatoz!
eta aurkitu
behar duzuna

Txirrita kalea, 13-15
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03



Hotz-gailuak
Izotz-gailuak
Labeak
Garbigailuak



Punta-puntako markak

«Ez dugu nahi izaten bakarrik kontatzea zer gertatu zen, baizik eta nola bizi izan zuen berak egoera eta nolako irakurketa egiten duen. Ez dugu istorio ofiziala nahi».

koarekin. Ez dugu nahi izaten bakarrik kontatzea zer gertatu zen, baizik eta nola bizi izan zuen berak egoera eta nolako irakurketa egiten duen berak gertatutakoaren inguruan. Ez dugu istorio ofiziala kontatzea nahi. Eta hori lortzeko konfiantza lortu behar da eta atzetik lan izugarria dago. Mesfidantza haundia izaten dute. Komunikabideek sortzen dute halako sentsazioa. Kazetariak joaten dira, lapurtzen dute behar dutena eta listo. Guk horren kontra egin behar izaten dugu lan». Esaterako, nabarmendu dutenez, *Cuidadores* zuzendariak 5 urte pasa ditu pertsonaiekin kafeak hartzen, erdi psikologo lanetan... Eta *Azken urratsa* dokumentalean Telleriak 40 bat elkarrizketa egin ditu. «Beraiek hustu egin behar dira eta hustean, agian, lortzen duzu beraiek iristea zuk nahi duzun lekura», diote.

Proiektuak luzeak, alde batetik, horregatik direla azpimarratu dute, baina bestetik, dirua ere lortu behar delako.

Promozio lana ere bai
Ikerketa lana haundia izan arren, pelikula bukatzean ere bada zer landua hiru herna-riarrek azaldutakoaren arabera. Ondoren, promozionatu egin behar izaten da, estrenatzen den momentuan jendea zinemara gerturatzeko. «Eta ez zinemara bakarrik, horrelako produktuek bizitza laburra baitute zineman. Hau ez da fikzioa eta hemen oso jende gutxi joaten da zinemara dokumentalak ikustera. Orduan hori da erronka, nola bideratu hori dena eta baita ere nola saiatu eskuratzen egin dugun inbertsio guztia, hor jarri dugun kapital guztia; ez bakarrik ekonomikoa baita pertsonala ere». ||



Moztuko langile bat 'Azken urratsa' pelikulako azken ukituak ematen.

'Azken urratsa', Mozturen proiekturik haundiena abendurako prest

COMETE Sareari buruzko dokumentala da *Azken urratsa*, hau da, Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi zebiltzanezi laguntzeko sortu zen sareari buruzkoa. Bospasei urtez aritu dira proiektu honekin lanean eta abendurako prest izango dela aurreratu dute Enara Goikoetxea, Iurre Telleria eta Inesa Aristimuñok, beraien esanetan, Mozturen proiekturik haundiena dena.

«Txiki hasi zen proiektu bat da eta izugarri hazi da. Koproduzio internazionala da, beste bi herrialdeekin, eta kanpora begira egin da, ez bakarrik hemengo kontsumorako. Lau herrialdetan grabatu da, bost hizkuntzetan... *Master class* bat izan da eta honekin ikasi dugu dena. Batik bat eduki du sekulako ikerketa lana. Comete Sareko pertsona guztiak elkarriketatu dira ia denak aurrez aurre, Comete omenaldietan egon gara, lan egin dugu Belgika, Ingalaterra eta hemengo historialariek, artxibo belga sekretuetara iritsi gara, militarretara, AEBetako artxi-boatako dokumentazioa dago, Ingalaterrakoa...», azaldu dute. Eta nola sartu hori dena 90

minututan? Nola kontatu modu interesgarri eta errazean inor ez galtzeko hainbeste pertsonaia eta kontaketa artean? Dokumental bat izan arren, fikzioaren estruktura narratiboa erabili dute istorioa kontatzeko orduan. Ez dira testimonioak soilik. Eta nabarmendu dutenez, hori da bere apustu eta zailtasunetako bat.

Omenaldia sarean parte hartu zuen jende guztiari

Proiektuaren helburua izan da erakustea, Comete bezalako ihes sare batek funtzionatu zuela jende askok parte hartu zuelako gauza txikiak egiten. «Gure asmoa zen omenaldia egitea hor lanean ibili zen jende guztiari. Denei ezinezkoa da, baina nolabait ideia hori transmititu nahi genuen. Eta uste dugu hori lortu dugula, dokumentalean argi gertzen dela milaka pertsona ibili zirela hor lanean».

Florentino Goikoetxeatik abiatuta

Idea sortu zen Telleria enteratu zenean Florentino Goikoetxea zein zen. «Ikertzen hasi ginen eta harritu gintuen kan-

poan hain baloratua zen pertsona bat herrian hain gutxi ezagutzea. Hemen kokatzen zen istorio batetik abiatu ginen baina dena ezagutzen duzuean, konturatzen zara hementxo zati bat bakarrik dela eta dena lantzea erabaki genuen. Material pila bat dago, serie bat egiteko adina, baina dirurik ez dugu», nabarmendu dute.

Materiala web orri batean

Bildutako material hori guztia gizarteratu nahiko lukete, baina ez dute gaitasunik ez xoxik. Dena dela, webgune bat sortzekoak dira. Horretarako harremanetan jarri dira, alde batetik Loturarekin, web orriak egiten dituen enpresarekin, eta bestetik, Eusko Ikaskuntza-Eusko- mediako jendearekin. Materialarekin zerbat egiteko beharra sentitzen dute: «Dokumentala baino gehiago bihurtu da. Eta hori pasatzen zaigu proiektu guztiakin. Izan ere, pertsonen lotutako istorioak dira eta ezin duzu jendea hartu erabili eta utzi. Azkenean existitzen da konpromiso bat. Ez dago inon idatzia baina jendeak zuri ematen dizunean azkenean zu ere zordun sentitzen zara». ||

EGUNGO PROIEKTUAK

- 'Azken urratsa':

Ekoizlea: Moztu filmak eta AMO films
Generoa: Dokumentala
Zuzendariak: Iurre Telleria eta Enara Goikoetxea
Gidoia: Thecla Geesing
Bertsioak: Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa
Sinopsia: Bizitza suspense nobela bat bezalakoa zen, inoiz ez zenekien nola bukatuko zen. Bizitza ordea, fikzioa baino arraroagoa da. Hirurogei urte baino gehiago igaro diren honetan, Azken Urratsa dokumentala iraganera itzultzen da, zoritxarreko gau batean, Pirinioetako baserri batean jazotako gogora ekartzera: bost herrialde ezberdinetako sei lagun abilotu zituzten bertan. Pertsona bakoitzaren istorioaren haria jarraituz, Bigarren Mundu Gerran ehunka pertsonen osatu zuten ihesbide sarearen historia kontatzen du.

- 'Cuidadores': Hirugarren saria lortu du 55 *Semana Internacional de Cine de Valladolid 2010* jaialdian
Ekoizlea: Moztu filmak
Generoa: Dokumentala
Zuzendariak: Oskar Tejedor
Bertsioak: Euskara, gaztelania
Sinopsia: Dokumental honek, endekapezko gaixotasuna pairatzen duten pertsonen zaintza arduratzen diren familiarrekin gaia jorratzen du.

- 'Denbora zenbatzen.

Muttogorriko hormak'.
Ekoizlea: Moztu filmak eta Pixel
Generoa: Dokumentala
Zuzendariak: Enara Goikoetxea
Bertsioak: Euskara, gaztelania, ingelesa
Sinopsia: Hiruaren kanpoaldean dagoen Muttogorri baserriari tristura daio; bizilekua zaharkituta eta erdi hondatuta ageri da; hormak zatika erortzen dira, egurrezko ateak galdu dute berezko kolorea, eta eraikinak zutik dirau, mamua bailitzan, inguruan gertatzen denari so. Hiria inguratu duen autobidearen obrak hasi dira. Bide honek, hirian pilatzen diren auto ilara ikaragarriak saihesten lagunduko du, baserriak 30 metroara pasako den bide berberak. Lehen pertsonan, zuzendariak, aldaketan labirinto honen erdian bizirauteko ahaleginetan dabilen bere familiarren historia kontatuko digu.

- 'Amaren Ideia':

Moreliako Nazioarteko Jaialdian saritua izan da, "Mejor Trabajo de la Sección Michoacana".
Urrezko izurde saria Cannes Corporate Media and TV Awards jaialdian.
Ekoizlea: La Maroma (Mexico) eta moztu filmak
Generoa: Dokumentala
Zuzendariak: Maider Oleaga
Bertsioak: Gaztelania eta euskara
Sinopsia: Espainiako Gerra Zibilak iraun zuen bitartean (1936-1939), ehunka haur atzemira eramanak izan ziren. Dokumental honek hiruren istorioa kontatzen digu.

- 'Ametsaren koloreak: Zumeta':

Ekoizlea: Moztu filmak
Generoa: Dokumentala
Zuzendariak: Monika Zumeta eta Enara Goikoetxea
Sinopsia: Monika Zumeta eta Enara Goikoetxeak elkarrekin zuzenduko dute Zumetaren sortze-prozesuaren inguruan egingo den dokumental hau.

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

Keunka
MUEBLE RUSTICO

ORDUTEGIA
Ast.-Ost.
09:00-13:00
15:30-19:00
Larunbata
09:00-13:00
15:30-20:00

ZATOZ !!

OUTLET !!

ALTZARIAK ETA ARGITARIAK
AURREKO DENBORALDIETAKO
"STOCK"-a

MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK
DENA KOSTU PREZIOAN !!

OUTLET !! OUTLET !! OUTLET !! OUTLET !! Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI), Tel: 943 33 10 81 www.keunka.com

◆ JUDO

Gerriko beltzen azterketan, 5 'dan' lortu ditu Jone Irastorzak

Hernaniko lau judoka esaminatu ziren joan den astean, gerriko beltzetan maila bat gehiago lortzeko, eta laurek lortu zuten dan bat gehiago. Jone Irastorzak 5 dan ditu, beraz, eta Gipuzkoako lehenengo emakumea da maila hori lortu duena. Ismael Mateok, Manuel Palomequek, eta Jose Angel Roblesek ere aprobatu zuten esamina.

GIPUZKOAKO emakume bakarra da 5 dan lortu dituen. Gerriko beltzetan 10 maila izaten dira judoan, eta ez dira asko izaten 5garrenera iristen direnak. Jone Irastorzak lortu du hazaina hori, Hernaniko judo irakasleak. Ismael Mateok lortu duena ere ez da makala; 4 dan lortu ditu Mateok. Manuel Palomequek 2garren dana lortu du, eta Jose Angel Roblesek lehenengo dana.

Joan den astean esaminatu ziren Hernaniko eskolako lau judokak, eta laurek lortu zuten euren helburua. Urtean bi azterketa izaten dira eta hor aprobetxatu behar izaten dute aukera. Giltza-teknikak, katak eta teoria izaten dituzte azterketa horietan, eta adituen epa-mahai batek epaitzen ditu.



Ismael Mateo eta Jone Irastorza irakasleak, ikasleekin batera. Bost egunetan ematen dituzte klaseak.

5 urte emaitza hori lortzeko

Jone Irastorzak bost urte pasa ditu zain, esamin hau egin ahal izateko. «Ezin dugu guk nahi dugunean esaminatu. Hor lege batzuk daude; 4garren dana lortu eta gero, bost urte itxoin behar dira hurrengo esaminerako. Orain, seigarrenerako, sei urte itxoin behar ditut».

Hernaniko eskola osasuntsu
Orain arte ere, maila haundiko eskola zen Hernanikoa. Carlos Lazkanok 5 dan baditu eta laster 6garrena ateratzeko aukera izango du. Eider Alonso ere hor da, 3 danekin. Irastorzak, Mateok, Palomequek eta Roblesek punttu bat gehiago eman diote beraz.

Deporte konpletua
Mateok eta Irastorzak garbi dute borroka baino gehiago dela judoa. «Kirol konpletua da judoa. Gazteek errespetoz jokatzeko ikasten dute; elkarri minik ez ematen. Horrez gain, gorputz guztiko giharrak lantzen dira, eta edozein adinetan hasi liteke praktikatzen». ||



HERNANIKO JUDO ESKOLA

- 12 urte Hernaniko kirodegian (lehen Herman ematen zen).
- 145 judoka dabilta gaur egun.
- 21 gerriko beltz atera dituzte Hernaniko judokak 12 urtean.
- Irakasleak arratsaldero han izaten dira, klaseak ematen.

Gipuzkoako Txapelketa eta infantilen jardunaldia gaur Hernanin

GIPUZKOAKO Judo Txapelketa jokatu da gaur Hernanin, 09:30etatik aurrera. Nagusien mailako txapelketa da, eta tartean Hernaniko lau judoka izango dira: Ismael Mateo, Oskar Carpintero, Santi Blanco, eta Eider Alonso. Maila haundiko ikuskizuna izango da beraz.

Horrez gain, infantilen erakustaldia, eta judo-jardunaldia ere izango da, jarraian. 11:30etatik aurrera, Gipuzkoako judoka gazteak izango dira helduei erreleboa hartuko dietenak, eta beste askoren artean, Hernaniko 11 judoka ariko dira bertan. ||

<h3>ABENDUKO ZUBIA</h3> <p>DISNEYLAND PARIS FUTUROSCOPE abenduaren 3tik 8ra autobusez helduak 465⁰⁰€ umeak 316⁰⁰€</p> 	<h3>ABENDUA</h3> <p>KRUZEROA KARIBERA abenduaren 13tik 20ra hegaldiak barne, 7gau - TI 894⁰⁰€</p> <p>URTARRILA NEW YORK Madriletak, 6gau, HTL 3*** - SA 752⁰⁰€</p>	 <p>HERNANI BIDAIAK Urbietan, 6 943 33 00 49 hernanib@teletel.es www.hernanibidaia.com</p>
---	---	--

<p>GAIAR ERAIKUNTZAK S.L.</p> 	<p>EZ UTZI AUKERA PASATZEN !!</p> <h2>NEKANENEA (ASTIGARRAGA)</h2> <p>AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI. URTARRILAREN 30-a ARTE PROMOZIO BEREZI-BEREZIA !!</p> <p>Deitu: 629 47 57 45</p> <p>Donostia ibilbidea, 84. - Bidebitarte Industrialdea - 20150 Astigarraga. Tfnoa.: 943 33 64 46. Faxe: 943 55 78 98. E-mail: gaiar@euskalnet.net</p>	
--	--	---

◆ XAKEA - Hernaniko Txapelketa

Hernaniko xake jokalaririk onena, gaur erabakiko da

Txapela irabazteko aukera gehienak Breogan Estevezek ditu, lehenengoa doa 5,5 punturekin. Jardunaldia 16:00etan hasiko da Zumitzan. Sari banaketa 18:30etan izango da.

HERNANIKO Xake Txapelketako zazpigarren eta azken jardunaldia gaur jokatuko da, 16:00etan Zumitzan. Txapela irabazteko aukera gehiena Breogan Estevezek du. Lehenengoa doa 5,5 punturekin eta nahikoa du Jon Altunaren aurka irabaztea. Eneko Martiarena berriz, bigarrena da 5 punturekin eta txapeldun izateko, Jesus Navascuesen aurkako partida irabazita ere, Breoganen hutsegitearen zain egon beharko du. Txapeldun izateko aukerak dituen hirugarrena, Jon Altuna da, baina horrek Breoganen aurka irabazi beharko luke, eta Eneko Martiarenak galdu.

Txapeldun eta azpitxapeldunaz gain, beste hiru saritu
Ondoren, 18:30ak aldera, sari



Saio interesgarriak izango dira gaur, txapelketako azken jardunaldian.

banaketa izango da. Sariak izango dira lehenengo bientzat, herriko lehenengoarentzat, federatu gabeko lehenengoarentzat, lehen gaztetxoarentzat eta lehen beteranoarentzat.

Gaurko partidak honakoak dira: Breogan/Jon Altuna;

Martiarena/Navascues; Blanco/Erdozio; Romero/Ixidro; Elozegi/Ijurko; Andreas/Arrieta; Lizaso/JR Altuna; Goikoetxea/Gastesi; Arriaran/Coffie; Costes/Lujanbio; Sito/Bueno; eta Armendariz/Izaro. ||

◆ FUTBOLA

Lidertzari gogor eusten dio Hernanik

Erregionalen Ohorezko mailan, gogor eusten dio Hernanik lidertzari. Atzo 2-0 irabazion Beriori, bi talde indartsuren arteko norgehiagoka. Lehenengo gola bere atean sartu zuen Beriok, eta bigarrena Iñarrak sartu zuen. ||

◆ MARATOIA

Argazkia, 08:30etan

Donostiako Maratoia jokatuko da gaur, 09:00etatik aurrera, eta Kronikak hernaniarren argazkia aterako du, Anoetan, 08:30etan, 3garren atean. ||

◆ TXANTXANGORRI

Ehiza txapelketan izena emateko epea zabalik da

Txantxangorri ehiza elkarteak urtero antolatzen du Elkarteko Ehiza Txapelketa, Uxukoerreka eta Epeleerreka inguruetan. Aurten 32garren aldiz jokatuko da, abenduaren 12an eta 19an, eta izena emateko epea irekita dago. Goizetan 10:30etatik 12:30ak arte apuntatu liteke, eta arratsaldean 17:30etatik 20:30etara. Apuntatzeko azkeneko eguna abenduaren 10a da, eta arratsaldeko 20:00ak arte egin ahal izango da. ||

◆ PELOTA

Urkizu eta Elortza finalean dira

Urkizuk eta Elortzak Gipuzkoako finala jokatuko dute, jubenilen mailan, 15 egun barru. Atzo 22-18 galdu arren, tanteoa alde zuten. Horrez gain, Esnalek eta San Sebastianek Gipuzkoako lehenengo mailari eutsi diote, mailaz jaisteko bigarren partidua ere irabazita, ostiralean, 22-20. Gaur bi partidua garrantzitsu jokatuko dituzte hernaniarrek. Aizpitartek finala du Egiako torneoan, 11:00etan. Ojuel-Gorrotzategik mailari eusteko jokatuko dute, Villabonan, 11:30etan. ||

◆ ERREMONTA - Azysa Binakako Txapelketa

Zeberio II eta Ion, finalerdietara

Abenduaren 4an eta 6an jokatuko dira semifinalak, eta jakina da zein 4 bikotek jokatuko dituzten. Zeberio IIak eta Ionak atzo lortu zuten pasea, Urrutia I-Utergari 40-31 irabazita. Urtasun eta San Miguelen kontra jokatuko dute finalerdietan. Beste finalerdia Juaristik eta Lizasok jokatuko dute, Urriza eta Etxeberria Illaren kontra. Bi partidua irabaztera jokatuko dira aurten finalerdiak. Final handia, abenduaren 18an izango da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† SABIN LEIBAR ARAMBURU

JAUNA

Atzo hil zen Hernanin, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Ezkonarrebak: Maritxu Arrieta (Amator Leibarren alarguna) eta Juli Ayerra (Imanol Leibarren alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

 Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitetzela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko azaroaren 28an

Helbidea: Latxunbe Berri, 27 - 4. A

Oharra: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da, bihar, astelehena, goizeko 09:00ak arte.



SABIN LEIBAR ARAMBURU



ELUR TXORI ELKARTEA



Hernanin, 2010eko azaroaren 28an

V. URTEURRENA

Jose Antonio Urdangarin Ugalde

2005eko azaroaren 29an hil zen, 47 urterekin

-Goian Bego-

"Zure oroimena beti gure artean izango dugu"

MARI JOSE, AMAIA, ANE ETA GAINERAKO AHAIDEEK.



Hernanin, 2010eko azaroaren 28an

ESKERTZA

Jose Garro Hernandorena

Orain egun gutxi hil zen Hernanin, istripuz.

- Goian bego -

Joseren anai-arrebek, ilobek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2010eko azaroaren 28an





FUNERARIA **VASCONGADA** EHORZKETAK
TANATORIOS

HOSPITALE ETA ETXEETAKO 24 ORDUKO ETENGABEKO ZERBITZUA
HERNANI - ASTIGARRAGA - URNIETA - ANDOAIN - GOIZUETARAINO
ERRAUSKETA FUNERARIA VASCONDOKO ERAIKUNTZAN ERREKALDEN



TFNO. IRAUNKORRA
943 332 234
902 402 900



FUNERARIA **VASCONGADA** EHORZKETAK


TANATORIO • BEILATOKIA

Orkolaga, 4
20120
HERNANI

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Gomez** Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA ● **GAUR** Hotza gaur ere protagonista, eta euria, egunaren lehenengo zatian. Arratsaldean atertu egingo du Elurra 600 metro ingurura egingo du. Min.3º / Max.9º
● **BIHAR** Epeltzera egingo du pittin bat bihar. Goizean giro eguzkitsua izango dugu, eta arratsaldera hegotik lainoak sartuko ditu. Elurra 600-700 metro ingurura. Min.3º / Max.10º

ARTEA



Victor Goikoetxea pintore hernaniarra eta Bixente Zaragueta Aquariumeko presidentea, aurkezpen egunean.

Victor Goikoetxearen lanik haundiena ikusgai, Aquariumean

Santurtziko Dorretxerako lau mural egin ditu Victor Goikoetxea pintore hernaniarrak eta lanaren zati bat ikusgai dago Donostiako Aquariumean, abenduaren 12ra bitarte.

SANTURTZIKO Udalak eskatuta, Santurtziko herriari, herri-tarrei omenaldia egiteko, Victor Goikoetxea pintore hernaniarrak lau mural egin ditu. Bere esanetan, bere lanik haundiena dena. Otsailetik aurrera, Santurtziko Dorretxearen parte izango da, baina aurretik, obraren zati bat Donostiako Aquariumean ikusteko aukera izango da. Aurkezpena ostegunean izan zen eta abenduaren 12ra bitarte izango da ikusgai.

Arrantza, meatzari eta baserritarrei omenaldia
Aurkezpen ekitaldian, Goikoetxearekin batera izan ziren, besteak beste, Bixente Zaragueta Aquariumeko presidentea, Ricardo Ituarte Santurtziko alka-

V. Goikoetxea: «Lan honen atzean ez dago pertsona bakarra, talde bat baizik».

tea, Danel Bringas kultura zinegotzia, inguruko artistak eta herri-tarrak, tartean hernaniarrak.

Goikoetxeak azaldu zuen egun berezia zela beretzat eta eskerrak eman zizkien bertarututakoei. Santurtzira joateko gonbitea ere luzatu zien, obra osorik ikusteko. Gogora ekarri zuen Santurtziko arrantza, meatzari eta baserritarrei egindako omenaldia dela. Eta azpimarratu zuen, lan horren atzean, ez dagoela bera bakarrik, talde baten lana baizik.

Zaraguetak eskerrak eman zizkion Santurtziko Udalari halako lana enkargatzeagatik eta Aquariumean jartzen uzteagatik, lanaz gozatzeko.

Ituarte txundituta geratu zela aitortu zuen eta ziur dagoela Santurtzin sekulako arrakasta izango duela.

Guztira, 100 m2-ko obra
Dorretxeko pisu nagusiko pareta guztiak dekoratuko ditu Goikoetxeak lan honekin, baita sapaia ere. Mural nagusia, 9 metrokoa, arrantzaleen omenez egindakoa da; bigarrenak baserria du gai nagusia; hirugarrena meatzari buruzkoa da; eta laugarrena, beste hiru gaien arteko nahasketa. Guztira, 100 m2-ko obra da. II

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Zikuñagan. 3 gela eta komuna berrituak eta sukaldia. Deitu: 665 711 199.
Oblatosen lokala-bulegoa (20 m2) alokagai, eta garajea salgai edo alokagai. Deitu: 628 947 235
Volkswagen Polo, 1.4 kotxea salgai. Gasolina. 10 urte. Egoera onean. Gris zilarra kolorekoa. **Prezioa: 2000€.** Deitu: 649 209 609
Pisua alokagai: Antziolan (residentziala), 2 logela, saloi, sukalde-komedia, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54
Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldia. Behean soziedadeta eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). **Prezioa negoziagarria eta erreztasunak ordaintzen.** Deitu: 629 682 827.
Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajeen. 26.500€. Deitu: 658 058 330.
Pisu polita salgai Karabalen. 2 logela, dena kanpora, gutzit berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.
Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. **Prezioa: 32.000.000pza.** Deitu: 619 813 357
Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m2, 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reiki, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, **prezio bereziak eta pertsonalizatuak.** "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ROYMA
ATEAK, LEIHOAK ETA PERTSIANAK
DISTRIBUIDORE OFIZIALA FINSTRAL

"RENOVE" PLANA
desk. % 22-raino !!

CALDETU KONPROMEZURIK GABE

ALMAZENA: Pol. EZIAGO, Pab.5 /ok.10 - 20120 HERNANI
ERAKUSKETA: PIZTIETA, 5 - ERRENTERIA.
Tel. 943 100 577

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
☎ 943 33 15 06

Vanesa eta Miguelo
Harategia eta aurrez egindako janaria

**ADI !!!
ADI !!!**

LARUNBATA - IGANDEA: ESKEINTZA BEREZIA !!

UKONDO ERREA..... 6,95€/ud (1h)
+ PATATAK
OILASKO BETEA..... 11,90€/ (2h)
(HARAGIA, URDAIAZPIKOA, GAZTA, YORKA, TXANPIAK)
BASURDEA SALTSAN..... 11,90€/kg
+ KAFE FLANA

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

A B E N D U A N

ROOMBA aspiragailu robot bat zozketatuko dugu ASTERO:



BALANTXAN EROSKETA egiten dutenen artean, eta KIXKAL eta AKEIT tabernetan KAFAEA hartzen dutenen artean

cenor BALANTXA
ELEKTROGAILUAK
Nagusia, 17 - ☎ 943 33 20 44

kixkal
taberna

nagusia, 15
hernani

AKEIT

Plaza Berri HERNANI